

Irakurriko al duzu, bai ala ez?

Arritxu Urrozola



Zergatik erabaki duzu artikulu hau irakurtzea? Bukaeraraino irakurriko ote duzu? Ulertu eta hemendik hamabost egunera gaur irakurritakoa gogoratuko ote duzu? Galdera hauen erantzunak "irakurgarritasuna" deitzen den ezaugarriari leudeke, hau da, gaia interesgarria izatean ala ez izatean, argumetu argia edukitzean, letra eta presentazioa erakargarria izatean, ... Baina psikologoak ondokoaz konturatzen ari dira: jendeak informazio teknikoaren zergatik irakurtzen duen -eta askotan zergatik irakurtzen ez duen- jakiteko, kontutuan hartu behar dena irakurlea da eta irakurgaiak berak ez du horrenbesterainoko garrantzirik.

Hemen erabiliko dugun gaia informazio teknikoaren ingurukoa da, hau da, eskuliburu, argibide, kontratu, etiketa, kontsumitzailearentzako informazio eta antzerako testuak irakurtzearen ingurukoak. Bide batez esan dezagun zenbait produkturen fabrikatzaileengan gai hauei buruzko jakinmina sortu dela, produktu horiek zuzen erabiltzeko argibideak irakurtzea beharrez-

koa delako. Zentral nuklearraren inguruko biztanleei segurtasun-arauak ezaguterazteko, inprimakiak gaizki betetzearen ondorioz asaguru-etxeek dituzten gastuak ekiditeko, etab. etarako egin ohi izan dira testu teknikoaren "irakurgarritasuna"ri buruzko ikerketak.

Bistakoa da pertsona askok bideoaren edo etxeko ordenadorea-

Irakurlea helburu jakin batekin hasten da irakurtzen. Etengabe eztabaidatzen du ea hasierako helburu horretatik hurbil dagoen edo ea urruntzen ari den. Urruntzen ari dela iruditzen bazaio, bere horretan uztea erabaki dezake, besterik gabe.

ren argibideak alde batera uzten dituela, bere kasa martxan jarri eta tresna erabiltzen ikasteko asmoz. Eta sarritan ez da arretarik jartzen kontsumitzaileentzako informazioan, elikagaien etiketetan edota kontratuetako letra txikian. Nola erabakitzen dugu, beraz, zerbait irakurtzeak merezi duen ala ez?

Irakurketa-prozesua aztertzen duten psikologoak ez datoz bat

begiek, oroimenak eta garunak prozesu horretan jokatzeko duten paperaz. Teoria batzuen arabera, irakurleak ikusten dituen letra edo hitz guztiak hartzen dituzte kontutan. Beste batzuen ustez, irakurleak memoria eta testuingurua erabiltzen dituzte esaldi batetik bestera pasatzeko. Bestalde, jakina da (eta honetan adostasun handiagoa da-

go adituen artean) irakurleak segun eta zein helburu duen, segun eta zein motatako informazioa lortu nahi duen, testuarekiko jarrera desberdina izango duela. Gerta liteke operazio konplexu baten xehetasun guztiak hartu nahi izatea, edota, alde-

rantziz, azaletik irakurri nahi izatea. Helburu hauek lortzeko irakurketa-estilo desberdinak erabili ditzake: azaleko irakurketa, irakurketa xehea, etab.

Jendeak informazio teknikoaren nola erabiltzen duen ikusteak, garunak abstraktutik konkretura birprozesatzen duela jartzen du begibistan. Hainbat ikerketatan ikusi den legez, manual edo eskuliburu batekin, esate



bestalde, ordenadore-erabiltzaile hasberriek zuzenean eskuliburuarekin hastea baino bateren bati laguntza eskatzea nahiago izatea.

Informazioaren antolamendua

Hainbat azterketa egin izan dira testuarekin batera diagramak tartekatuz. Azterketa horietan ikusi izan denez, badirudi informazio teknikoak irakurtzean jendeak baduela kostu kognitiboa (hau da, informazioaz jabetzeko zenbateko esfortzua egin behar duen) kalkulatzeko sistema mentala. Irakurleak informazio gehigarriak oroimena edo ulermena zaildu egingo diola ikusten badu, esate baterako, bazter utziko du informazio hori. Irakurlea helburu jakin batekin hasten da irakurtzen. Etengabe eztabaidatzen du ea hasierako helburu horretatik hurbil dagoen edo ea urruntzen ari den. Urruntzen ari dela iruditzen bazaio, bere horretan uztea erabaki dezake, besterik gabe.


baterako, hasieran informazio orokorra ematen badu, irakurle bat baino gehiago saiaturiko da hortik abiatu eta irakurritakoa praktikan jartzen, eta ez du beste informaziorik irakurritako. Dirudenez, irakurleek nahiago dute "sukaldaritza-liburu" gisan emandako informazioa. Nahiago dute informazioa kantitate eta prozeduratan zatikatua, horrela beraiek bisualizatu eta praktikan jarri ahal izateko. Nabarmena da

British Library-ren (Britainiar Liburutegiaren) aginduz, beren irakurleek testuak ordenadoreetan gordetzea nola erantzungo lioketen ikusteko azterketa bat egin da. Azterketa horretan irakurleek irakurketa-kostua nola kalkulatu duten jakin nahi izan da, paperaren eta ordenadore-pantailaren artean egon daitezkeen diferentziak baloratzeko. Ikusi denez, irakurleek zenbateko burulana izango duten ez dakitene-

an, are gutxiago aldentzen dira hasierako beren helburu nagusitik. Testua paperean duten irakurleek orrialde-kopurua, orrietan atzera eta aurrera ibiltzeko eta zenbaitetan azpimarratzeko eta oharrak marjinetan idazteko aukera dute. Mota honetako laguntzarik gabe pantailan irakurtzen dutenak, testu-multzorretan galdu egiten dira eta beste inork baino lehen hartzen dute testua uzteko joera. Ordenadorean, orrialde-zenbakia agertzea eta atzera-aurrera ibiltzeko erraztasunak ematea beharrezkotzat jo zen, baina hala ere erabiltzaileek kostua kalkulatzeko zailtasun handiagoak zituztenez, hasierako helburuei atxikiago segitzen zieten eta, beraz, errazago uzten zioten irakurtzeari, merezi ez zuelakoan.

Izan ere irakurleek behar duten ezer ez dutela hor aurkituko ikusten badute edo iruditzen bazaie, irakurtzeak duen kostuak ez duela merezi pentsatzen dute eta, ondorioz, testu hori alhora utziko dute. Horrek ondorengoa esan nahi du: kontsumitzaileentzako informazioa eta informazio teknikoak idazten dutenak (edozein mailatan, gozoki-paperetik hasi eta segurtasun nuklearreko eskuliburuetaraino) eta bezeroek informazio hori irakurri dezaten nahi badute, irakurlearen kostu kognitiboa (irakurleak argibideen aurrean zer espero duen, alegia) kontutan hartu beharko dutela.

Abisu gisako flashak ere erabiltzen dira informazio-atal hori prozesatzeak merezi duela adierazteko. Baina gehiegi erabiltzea ere ez



da komeni, irakurlea abisu horiek ere esfortzu mentalaren kalkulua- ren barruan sartzen hasten bait da eta, ondorioz, merezi duten ala ez baloratzen hasiko da berriro ere.

Baina badira irakurleak kostua onar dezan informazioa diseina- tzeke hainbat modu sofistikuatuago.

Hauetako batzuk tipografian eza- rrita daude. Esate baterako, letra etzanean dagoen testua irakurtzea zailagoa da.

Bestetik, testua "justifikatzeak" (hau da, lerro guztiak marjineraino eramateak, hitzen arteko espazioa hedatuz edo hitzak zatituz) irakur- learen ulermenari tentsioa areago- tu egiten diote. Kostu kognitiboa handiagoa da, irakurleek hitz ba- ten erdia lerro batetik bestera era- man behar dutenean edota esaldi baten lehenengo hitza orrialde ba- tetik bestera, esate baterako. Testu justifikatuaz eta justifikatu gabeaz probak eginez, dirudienez pertsona helduek bi motako testuekin ber- dintsu irakurtzen dute. Haurrek eta adinekoek, ordea, hobeto ira- kurtzen dute testua formaren ara- bera (eta ez esanahiaren arabera) antolatuta dagoenean.

Espazioa, testu baten egitura adierazteko ere erabil daiteke (ikus 1. irudia). Ikerlan batean irakurle- talde bati A bertsoia erakutsi zi- tzaion eta beste talde bati B bertsoia eta irakurritakoa buruz idazteko esan zitzaion. Guztiek lortu zuten

2. irudia.

		x tratamendua	
		BAI	EZ
y trata- mendua	BAI	7,26	6,94
	EZ	6,13	5,48

2. eta 3. irudiak alderatuz, azken honetan konparazioak errazago egiten direla eta azkarrago irakurtzen direla ikusten da (norantza bakarreko irakurketa eta progresio numeriko argia).

kontrol-taldea	x tratamendua bakarrik	y tratamendua bakarrik	x eta y tratamenduak
5,48	6,13	6,94	7,26

3. irudia.

testua berridaztea, nahiz eta pasar- te bera hitzez hitz hartu ez. Bi tal- deetako irakurleak pertsona heldu- ak eta, nolabait esateko, irakurle "onak" ziren. Antzeko froga umeekin eginez (testu sinpleagoa erabili zen horretarako), B erako testua zute- nek % 20 gainditu zituzten A talde- koen emaitzak.

Taula, grafiko, irudi etab. etako informazioari ere berdin-berdin aplika lekiok azpiko egitura iden- tifikatu eta azaltzeko ideia. Taula baten egitura zenbat eta argiagoa izan, hainbat eta errazago ulertuko da. (Ikus 2. eta 3. irudiak.) Batean, irakurleak konparazioak eginez, horizontalki eta goitik behera ira- kurriz, berak ondorioztatu beharko du zein den kontrol-taldea eta on- dorioak atera beharko ditu. Biga- rrenean, berriz, kontrol-taldea zein

den argi dago, emaitzak norantza batean bakarrik irakur daitezke eta progresio numerikoak konparazioa erraztu egiten du.

Grafiko-diseinua

Grafiko-diseinuari buruz ere bi gauzatxo: badirudi grafi- koetako lerroetan kolore desberdi- na erabiltzea eta grafikoak lau al- detan (eta ez bitan bakarrik) eska- lak dituztela erabiltzea informazioa zehatzago jasotzeko baliagarri ger- tatzten dela.

Irakurleek taulekin dituzten era- gozpenak, sarritan, testuan taulak duen posizioari dagozkio. Testuan aipatu eta segituan marrazki edo bestelako informazio ez-testuala jartzeak badirudi irakurleei kostu kognitiboa areagotu egiten diela.

Inork ez daki prozesatzeko gaita- suna zein zehatz kalkulatu du- gun eta hori kostuekin nola aldera- tzen dugun, baina nabarmena da norberaren irudiak ere irakurtzeko portaeran eragiten duela: pertsona batek informazio teknikoan barre- na murgil daitekeen pertsona dela pentsatzen badu, kontrakoa (ez de- la ez hanka eta ez buru aurkitzeko gai) pentsatzen duenak baino luzeago arituko da irakurtzen.

Bukatzeke eta laburtzeko, esan dezagun informazio tekniko idaz- ten dutenek zein irakurlerentzat idatzi behar duten kontutan hartu behar dutela. Eta bide horretan hi- ru galdera izan behar dituztela go- goan: zer dakite erabiltzaileek infor- mazioarekin topo egin aurretik? Zer gertatzen da informazioa aurkitze- an? (Zenbateraino ulertzen da eta zerk lagundu edo galeratzen du?) Eta zer gertatzen da gero? (Nola in- plementatzen dute erabiltzaileek be- ren azken ezagutza?).

A bertsoia

Jakob-ek hamabi seme izan zituen. Lia-ren semeak: Ruben (Jakob-en maiorazkoa), Simeon, Levi, Juda, Isakar eta Zabulon. Rakel-en semeak: Jose eta Benjamin. Eta Bilha-ren (Rakel-en neskamearen) semeak: Dan eta Neftali. Eta Zilpa-ren (Lia-ren neskamearen) semeak: Gad eta Aser. Hauek dira Jakob-en semeak, Padan-aram-en jaiok.

B bertsoia

Jakob-ek hamabi seme izan zituen.
Lia-ren semeak:
Ruben (Jakob-en maiorazkoa),
Simeon, Levi, Juda, Isakar eta Zabulon.
Rakel-en semeak:
Jose eta Benjamin.
Eta Bilha-ren (Rakel-en neskamearen) semeak:
Dan eta Neftali.
Eta Zilpa-ren (Lia-ren neskamearen) semeak:
Gad eta Aser.
Hauek dira Jakob-en semeak,
Padan-aram-en jaiok.

1. irudia.